



IRAGARKIA

Onespena ematea garbiketako eta mantentze lanetako peoi lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendari

2021eko abenduaren 28an, Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Presako Neurrien 20/2021 Legea onetsi zen.

2022ko maiatzaren 4ko osoko bilkuran, Dulantziko Udalak enplegua egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen, eta ALHAOren 61. zenbakian argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 27an.

Alkateak 2022ko azaroaren 25ean emandako ebazpen baten bidez, garbiketako eta mantentze lanetako peoi lanpostua egonkortzeko prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoa onetsi ziren, eta hautaketa prozesurako deialdia egin zen.

2024ko otsailaren 17an, iragarki bat argitaratu zen BOEn, epearen hasiera iragartzen zuena garbiketako eta mantentze lanetako peoiaren lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozesuan eskaerak aurkezteko. Epe hori eten egin zen 2024ko otsailaren 23an.

2024ko maiatzaren 10ean, iragarki bat argitaratu zen BOEn, iragartzen zuena berriz hasi zela garbiketako eta mantentze lanetako peoiaren lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozesuan eskaerak aurkezteko epea.

Honako eskaera hauek aurkeztu dira: garbiketako eta mantentze lanetako peoi lanpostua egonkortzeko prozesuaren oinarri orokortako 2. puntuaren ezarritako izen emate epean:

IZEN-ABIZENAK	NANA	AUTOBAREMAZIOA
Eduardo Fernández de Luco Landa	16XXXX27J	28,03406
Unai Ruiz de Argandoña Morillas	7272XXXXW	18,31202
Iñaki Gastaminza López de Maturana	XXXX4802C	14,28438
Enrique Rodríguez Martínez de Marañón	44XXXX87N	12,13408
Markel López de Aberasturi Albiztur	7283XXXXC	10,00
Francisco Javier Morente Sánchez	XXXX1263Z	4,19976

Berlaratutakoek honako hau erabaki dute aho batez:

Lehenengoa. Onespena ematea garbiketako eta mantentze lanetako peoi lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez egonkortzeko prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendari:

Onartutakoak

IZEN-ABIZENAK	NANA	AUTOBAREMAZIOA
Eduardo Fernández de Luco Landa	16XXXX27J	28,03406
Unai Ruiz de Argandoña Morillas	7272XXXXW	18,31202
Iñaki Gastaminza López de Maturana	XXXX4802C	14,28438
Enrique Rodríguez Martínez de Marañón	44XXXX87N	12,13408
Markel López de Aberasturi Albiztur	7283XXXXC	10,00
Francisco Javier Morente Sánchez	XXXX1263Z	4,19976

Baztertutakoak: bat ere ez.





Bigarrena. Hauek izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Lehendakaria: Vanessa Domínguez Casal.
Ordezkoa: Marta Ramírez Gómez.

Bokalak: Patricia Álvarez Lavín.
Pedro María Sáez de Maturana Gallardo.
Isabel Andrés Alonso.
Ordezkoa: Juan José Alburquerque Gajate.
Ordezkoa: José Antonio Sanz Puente.
Ordezkoa: María Teresa Martínez de Marañón. Noriega.

Idazkaria: Inmaculada Galerón Iglesias.
Ordezkoa: Fernando Alonso Puente.

Epaimahaiko kideek ez dute esku hartuko eta udaleko alkateari jakinaraziko diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada. Izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan jasotako arazoirenen bat bada.

Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, ez baitu botorik izango.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakari diharduenaren botoak ebatziko du.

Epaimahaia ordezkoez ere osatuko dute.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta ezingo du jardun, kideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, ez baldin badago.

Hirugarrena. Onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda argitaratzea, ALHAOn, web orrian eta udalaren iragarki taulan.

Dulantzi, 2024ko irailaren 10a. Alkatea, Joseba Koldo Garitagoitia Odría.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

